

GIPUZKOAKO ZAHAR EGOITZETAKO NEGOZIAZIOARI ELA PROPOSAMENA 2026.03.31

Sarrera:

ELAk berriki Aldundiarekin eta patronalarekin edukitako bileren ondoren proposamen berri bat landu du.

Proposamena, martxan ditugun grebak bezala, helburua argi bat dauka: sektorearen gainbehera eta merkantilizazio aurrean, lan baldintzak hobetuz eta zerbitzu arreta hobetuz sektorea duintzea.

Hitzarmen honetan partzialtasunak ekartzen duen prekaritatearekin amaitzea ezinbestekoa da. Enpleguaren baldintzak eta egoiliarren arreta nabarmen hobetuko bait da.

Nahitaezko helburuetako bat ere bada langileak pairatzen duten arrakala ekonomikoarekin amaitzeko pausoak ematea.

Sektoreko langileen adin, lan osasun eta hizkuntza arazoen aurrean ere adostasunak behar ditugu.

Guzti honekin 2025-2026ari begira hitzarmen proposamen bat landu degu.

Proposamenaren iraungitasuna:

Proposamenaren logika hurrengo 3 hilabeteetan akordio bat ixtearekin lotuta dago.

Proposamena:

1. Textuaren oinarria:

- a. EULEN, BIHARKO, GEROZERLAN hitzarmenen testuak.
- b. Hobekuntza ekonomikoak: Aldundiak tarifak ordaintzeko eskatzen dituen gutxieneko soldata oinarriak, antzinasuank, deskantsuak...

2. Hitzarmenaren indarraldia: 2025-2026

3. **Prekarietaren kontrako neurria:** Egoitzetako eta eguneko zentroetako langile guztiek kontratu finkoa eta lanaldiaren % 100ekoa izango dute. Lanaldi osoa egutegian sartuta egongo da.

4. Soldata igoerak:

- a. 2025: KPIa (%3,7) + %1,3= %5
- b. 2026: KPI (%2,6) + %2,4 = %5

5. Gazteberritze eta lan osasuneko neurria:

60 urtetik gorakoentzat: 30 orduko lanaldia astean. Gainera, soldatarik gabeko %25erainoko baimena izango dute 60 urte betetzen dituztenetik erretiroa hartu arte. Baimen hori egun, aste, hilabete, hiruhileko edo urtebeteko zenbaketaren arabera egin ahal izango da. Kotizazioek % 100ekoak izaten jarraituko dute.

6. Euskera

55 urtetik beherako langile guztiei euskara ikasteko baliabide ekonomikoak eta denbora emango zaie, eta gehiengo sindikalarekin lan zentroetan euskara planak adostuko dira.